

1- ENTZUN AURRETIK

1.1. Telefonoz hizketan

 **Zertaz ari dira? Lotu erantzun bakoitza beheko zenbakiekin.**


- Kopiatu al duzu?.. Bai, a bilduaren aurretik nire izena eta abizena segidan. Tarterik gabe.
- Bale. Utziko dizut biharko. Baina gasolina bota behar diozu.
- Ea gogoratzen naizen! Sartzeko, atea krisketa jarri gabe utziko dizut.
- Baina ezkerreko poltsikoa zulatuta dauka. Josi.



- ▶ 1. Posta elektronikoko helbideaz.
- 2. Etxeko giltzez.
- 3. Autoaz.
- 4. Galtzez.

 **Konparatu erantzunak lagunarekin.**

2- ENTZUN BITARTEAN

 **2.1. Lehen grabaketa-zatia entzun bitartean galderei erantzun.**

Zer eskaintzen dio Sarak Amaiari?

- Oinetako beltzak.
- Hiru galtza-pare.
- Zenbait soineko-mota.

Nondik ari da deika Amaia?

- Kaletik.
- Igogailutik.
- Tabernatik.

 **Konparatu erantzunak lagunarekin.**



2.2. Ideiak egia ala gezurra diren markatu

Orain, grabaketa osorik entzun; esan ideia hauek egia ala gezurra diren. Konparatu gero zure erantzunak lagunarekin.

IDEIAK	Egia	Gezurra
Sarak bi soineko beltz erosi nahi ditu.		
Sara eta Amaia berdintsuak dira itxura aldetik.		
Amaiak badu bere soineko bat festarako, baina desegokia.		
Amaia Sara gabe doa festara.		
Giro eta mutil ederrak izaten dira horrelako festetan.		
Telefono-deia eten egin da igogailuagatik.		

3- ENTZUN ONDOREN

3.1. Hizkuntzan arreta

Pertsonak, gauzak, tokiak, garaiak deskribatzen:

- Neska jatorra.
- Zapata gorriak.
- Igogailu madarikatua.
- Une garrantzitsuak.

Adjektiboak erabiltzen ditugu deskribapenak egiteko:
Izena + adjektiboa.



3.2. Zer deskribatzen da: pertsonak, gauzak, tokiak, garaiak?

Hemen grabazioan entzundako hainbat bikote edo zati deskriptibo dituzu: soineko beltza, jende jatorra, mutil ederrak, igogailu madarikatua, une garrantzitsua.

Osatu taula grabazioko zati edo bikote horiekin. Nahi baduzu, taula osatu aurretik entzun audio osoa, edo irakurri transkripzioa.



AMAIA.— (telefonoan) Ez daukat ezer txukuna janzteko. (...) Ez. (...) Zuk utziko didazu soineko beltza? (...) Bai. (...) Antzekoak gara. (...) Entzun, Sara, igogailuaren ondoan nago, eta, barruan sartzen naizenean, eten egingo da deia. (...) Beste bi? (...) Kalerako ala festarako?

AMAIA.— Sara, Sara, ez dizut entzuten, barkatu, igogailua iritsi berria da eta... (...) Festarako? Ba primeran, oso ondo etorriko zaizkit, batere gabe nagoelako. Bien artean bat aukeratuko dut zuekin joateko. Ederki ibiliko gara, ikusiko duzu. Niri festa horiek izugarri gustatzen zaizkit: jende jatorra joaten da, giroa ederra izaten da eta batzuetan, mutil ederren bat ikusteko aukera dago. Ez, ez, ez, ez, pisukideak ez, egun osoa ematen dut haiekin eta beste giro batean ibiltzea ondo etorriko zait. (...) Sara? Ai, Sara! Sara? Hor zaude? Ai, igogailu madarikatua! Sara! Une garrantzitsuenean eten behar!



Pertsonak	Gauzak: jantziak...	Tokiak	Uneak/Garaiak

3.3. Pertsonak eta jantziak deskribatzen: adjektiboak

Adjektibo batzuk azaldu dira 3.2 puntuan: *beltza*, *ederra*, *madarikatua*. Adjektibo hauek balio dute pertsonak edo /eta jantziak deskribatzeko.

  Ezagutzen duzu jantziak deskribatzeko adjektibo gehiago?: Zein? Osatu zerrenda lagunarekin batera. Hartu eredu bezala soinean jantzita duzuen.

3.4.1. Ikaskidearen jantzia baloratzen

  Binaka egin, txandaka, ahoz. Ekarri etxetik zure argazki bat, ekitaldi edo toki berezi batera eraman duzun jantzia erakusten duena: festaren batean, ezkontzaren batean, parrandaren batean, lehen zitan neska/mutil batekin... Galdetu ikaskideari:



Jantzi egokia da horretarako?

Ikaskidearen erantzuna: baloratu ikaskidearen jantzia eta esan jantzia egokia den horretarako. Kontuan hartu 3.1, 3.2 eta 3.3. ataletan azaldutako deskribapen-esaldiak.

Adibidez:

- Jantzi egokia da ezkontzara joateko?
 - Bai. Baina zapata gorri horiek...
- Zer pasatzen da zapatekin?
 - Takoi luzeak oso txarrak dira dantza egiteko.
- Egia!

3.4.2. Zein ikaslek aukeratu du jantzirik egokiena

  Ikasle guztien jantziak ebaluatu eta gero, galdera honi erantzun: Nork aukeratu du jantzirik egokiena? Osatu taula.

IKASLEA	EKITALDIA	JANTZIAREN DESKRIBAPENA

